



DEIALDIA

Prospekzio bidaia HONG KONGERA eta SHENZHENERA, agendarekin TXINA 2015

Lekua: HK Convention and Exhibition Center (HKCEC).

Egunak: 2015ko azaroak 2-5.

Sektorea: Alkoholdun edariak.

Izena emateko epea: osteguna, 2015eko abuztuak 6an.

Parte-hartzearen prezioa: 700 € + %21 BEZa.

Informazio gehiago: Tel.: 94 470 65 00
Email: agro@camarabilbao.com

DEIALDI HONETAN:

Merkatuaren informazioa

Programaren deskribapena

Eskeinitako zerbitzuak

Parte hartzearen baldintzak eta kostua

Izena ematea

Izen-emate fitxa

Kanpoko sustapenari laguntzeko ekintzen barruan, **Hong Kongerako eta Txinarako (Shenzhen) prospekzio bidaia bat** antolatu du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, **Hong Kong International Wine & Spirits 2015** azokaren harira; bi hirietan parte hartuko duten enpresetako bakoitzarentzako agenda pertsonalizatuak eta azokarako zein Hong Kongeko salmenta guneetarako bisitak ere egingo dira.

Ekintza honen helburua da, balizko bezero interesgarriekin zuzenean harremanetan jartzeaz gainera, bertan ezagutzea Euskadiko ardogintza industriarentzat ezinbesteko gisa identifikatutako bi azoka horiek (eragile nagusiak, konpetentzia, prezioak, sarbideak, publikoarentzako salmenta guneak, Txinaren eta Hong Kongen arteko desberdintasunak...).

Merkatuaren informazioa

[Hong Kong](#)

[Txina](#)



[Hong Kong](#)

Hong Kong oso merkatu erakargarria da ardogintza sektorearentzat. Kontsumoak gora egin du azken bost urteetan, eta 4,4 litrokoa da biztanleko, Asiako altuenetako bat.

Merkatuan sartzeko arazorik ez dago: inportatzeko eskakizunak sinpleak dira, eta ez dago ardoaren gaineko muga-zerga edo bestelako zergarik; hori dela-eta, inportazioen ia %20 (bolumenaren %38) beste helmuga batzuetara esportatzen dira berriz ere, batez ere Txina kontinentalera, Macaora eta Japoniara.

Hong Kongeko gobernuak urteak daramatza lanean, eskualdea ardoaren Asiako merkataritza zentro eta banaketa zentro nagusi bihurtzeko. Horretarako, akordioak sinatu ditu ardoa ekoizten duten hainbat herrialderekin, Espainiarekin besteak beste, sektorea sustatzeko.

Bestalde, ardo enkanteen munduko zentro nagusi bihurtu da Hong Kong, tradizionalki garrantzitsuagoak izan diren New Yorken eta Londresen aurretik.

[Txina](#)

Ardo kontsumoak nabarmen egin du gora azken urteotan, garagardoarenak baino gehiago, nahiz eta hori izan, oraindik, Txinako edaririk kontsumituena. Espainiako sor-marka ezagunenak Errioxa eta Ribera de Duero dira. Txina munduko kontsumitzaileetan bosgarren bada ere, per capita kontsumoa oso txikia da oraindik.

Merkatua oso lehiakorra da, eta esportazioan esperientzia izatea oso garrantzitsua da.

Inportatutako ardoaren kontsumoa hiri handietan eta Txina ekialdeko itsasertzeko eskualdeetan ematen da, Shanghai, Pekin eta Guangdong inguruan batik bat.

Azkenaldian online salmentak nabarmen egin du gora, eta horrek oso prezio lehiakorrek eskaintzeko modua ematen duela, kostuen aurrezpena dela eta.

Programaren deskribapena

[Hong Kongeko ardo sektorearen inguruko mintegi informatiboa](#)

[Hong Kongeko agenda komertziala](#)

[Bisita gidatuak Hong Kongeko salmenta guneetara](#)

Antolatzaileek ondorengo zerbitzu hauek eskainiko dituzte:

[Hong Kongeko ardo sektorearen inguruko mintegi informatiboa](#)

Mintegiak Hong Kongeko eta Txinako ardogintza eta nekazaritza-elikagaien banaketaren panorama deskribatuko du: merkatuaren neurria, nobedadeak, nortzuk diren bitartekariak, zergatik existitzen diren, nor den beharrezko, desberdintasun kulturalak... Hori guztia, enpresak bere estrategia komertziala nola antolatu behar duen eta arrakasta lortzeko zer zaindu behar duen jakiteko.

Eguna: azaroak 2an.

[Hong Kongeko agenda komertziala](#)

Bidaia honetan, **lan-agenda pertsonalizatuak** kudeatuko dira parte hartzen duten enpresen eta Hong Kongeko bezero potentzialen artean. Agendek egun eta erdiko iraupena edukiko dute, eta enpresa bakoitzaren interesen arabera egingo dira. Elkarrizketak inportatzaileen bulegoetan edo agendak egiteaz arduratuko den aholkularitza enpresaren bulegoetan egingo dira.

Egunak: azaroak 2an eta 3an.
(4-6 bilera jarriko dira).

[Bisita gidatuak Hong Kongeko salmenta guneetara](#)

Bisitak antolatuko dira Hong Kongeko den-detara, merkatuko txikizkari mota desberdinen ezaugarriak jakiteko (supermerkatuak eta ardo-saltoki espezializatuak batez ere). Horrela, linealak aztertu, lehiakideak nortzuk diren ulertu, eta sektorearen egoera bertan ikus dezake enpresak).

Egunak: azaroak 2an eta 3an.

[Prospekzio bidaiaren egitura/egunak](#)

Larunbata, urriak 31:

Hong Kongera irten, hegazkinez.

Igandea, azaroak 1: Hong Kongera iritsi.

Astelehena, azaroak 2:

Merkatuan (Hong Kong eta Txina) sartzearen hastapenen mintegia, lan-agendaren lehen eguna eta bisitak salmenta guneetara Hong Kongen.

Asteartea, azaroak 3:

Agenda komertzialaren bigarren eguna eta bisitak salmenta guneetara Hong Kongen.

Asteazkena, azaroak 4:

Lehen orduan irteera trenez Shenzhenera (17 km-ko distantzia) eta arratsaldean, Hong Kongera itzuli.

Osteguna, azaroak 5: Bisita Hong Kong International Wine & Spirits 2015 azokara.

jarraitu 

Programaren deskribapena

B2B Wine Meetings topaketak Shenzhenen (Txina) Bisita International Wine & Spirits Hong Kong 2015 azokara

B2B Wine Meetings topaketak Shenzhenen (Txina)

Aldez aurretik hitzartutako bilerak izango dira, eta hiruko ospe handiko hotel batean edo lokal egoki batean egingo dira. Egun bateko iraupena edukiko dute; beraz, 6-8 bilera egingo dira, batez beste, hirian batetik bestera ibili beharrik gabe. Bilerak 10:00etan hasiko dira, eta 17:30ean amaitu, gutxi gorabehera.

Upategi bakoitzak bilera-mahai bat edukiko du, kopa zerbitzuarekin, enpresaren banakako kartelarekin, aldez aurretik hitzartutako bilera-agenda batekin eta bilduko den inportatzaile bakoitzaren informazio-fitxarekin. Upategien zerbitzura jarriko da gonbidatutako inportatzaileen zerrenda.

Eguna: azaroak 4an.

Bisita International Wine & Spirits Hong Kong 2015 azokara

Azaroaren 5ean, 6an eta 7an izango den Hong Kong International Wine & Spirits azoka ere bisitatuko da. Bisita azokaren lehen egunean ikusiko da, azaroaren 5ean (osteguna), eta azokako inportatzaileen standak bisitatzeko aukera ere egongo da.

Eguna: azaroak 5ean.

Azokaren izena: Hong Kong International Wine & Spirits Fair 2015.

Web gunea: <http://www.hktdc.com/fair/hkwinefair-en/HKTDC-Hong-Kong-International-Wine-and-Spirits-Fair.html>

Egunak: 2015eko azaroak 5-7.

Lekua: HK Convention and Exhibition Center (HKCEC).

Izaera: Profesionala (5ean, 6an eta 7an) eta publikoa (7an).

Maiztasuna: Urtean behin.

Edizioa: 8.

2014ko erakusketari kopurua:

30 herrialde eta eskualdetako 1.000 erakusketari baino gehiago.

2014ko bisitari kopurua: 75 herrialde eta eskualdetako 20.000 erosle eta 30.000 ez- profesional (aurreko edizioan baino %30 gehiago).

Eskeinitako zerbitzuak

Bisen izapidetzea

Laginen Hong Kongetik Shenzhenerako kudeaketa eta bidalketa

Merkatuaren eta salmenta guneen informazioa

Laguntza, OCM laguntzen dokumentuak prestatzeko

Eusko jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak ondorengo zerbitzu hauek eskainiko ditu:

- Bisaren izapidetzea (bisaren kostua ez dago sartuta).
- Logistikaren kudeaketa, ardoak Hong Kongetik Shenzhenera bidaltzeko (Euskal Herritik Hong Kongerako bidalketaren kostua ez dago sartuta).
- Merkatuaren inguruko informazioa (sarbideak, zergak, datu interesgarriak eta abar).
- Mintegi informatibo baten antolaketa, merkatuan aditua den pertsona batekin.
- Upategiaren eta helmugako aholkulariaren arteko harremana erraztuko du, agenda prestatzeko.
- Hong Kong hiriko salmenta guneen identifikazioa eta bisita gidatu baten antolaketa gune esanguratsuenetara.
- International Wine & Spirits 2015 azokarako sarbidearen kudeaketa (sarreraren kostua sartuta dago).
- Txinera-ingelesa itzulpen zerbitzuak eskaini Shenzhenen, beharrezkoa izanez gero (horren kostua ez dago sartuta).
- Shenzhengo B2B Wine Meetings topaketetara gonbidatutako inportatzaileen zerrenda emango da.
- Beharrezkoa izanez gero, laguntza dokumentazioa prestatzeko, hirugarren herrialdeetan sustapen programak OCM funtsekin finantzatzeko eskakizunak betetzeko.
- Hegaldien, trenen eta hotelen kudeaketa (kostua ez dago sartuta).

Parte hartzearen baldintzak eta kostua

Joateko konpromisoa

Euskal Herrian egindako produktuak

Ebaluazio-inkesta

Parte-hartzearen kostua: 700 € + BEZa (%21a)

Parte hartzen duten enpresek ondorengo eskakizunak bete beharko dituzte:

EKITALDIEN AURRETIK:

- Dagokion sor-markako ardoak ekoitzi eta komertzializatu.
- Sustapen materiala (web orria eta/edo katalogoak) ingelesez eduki eta antolatzaileei dagokion epean eta moduan eman.
- Sustapen ekintzan (erakusketan, produktua dastatzeko gunean eta abar) ingelesez mintzatzeko gaitasuna eduki.
- Beharrezko informazioa eman, aholkularitza-enpresak upategiaren inguruko azterketa egin eta horren indarguneak eta lehiarako abantailak identifika ditzan.
- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.

EKITALDIAK IRAUN BITARTEAN:

- Promozionatuko diren produktuak **Euskal Herrian egindakoak** izango dira.
- Programatutako ekintzen ardura izatea.

EKITALDIEN ONDOREN:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eskatzen denean.

Parte-hartzearen kostua:

700 € + %21eko BEZa (847 €).

Izena ematea

[Izen-emate fitxa, behar bezala beteta](#)

[Ordainketa-egiaztagiria](#)

[Izena emateko azken eguna: 2015eko abuztuak 6an](#)

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartu nahi izanez gero izen-emate fitxa bete eta lehenbailehen bidali Lucia Artazaren izenean **agro@camarabilbao.com** helbide elektronikora edo **94 442 00 61 fax** zenbakira.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da (leku kopurua mugatua da). Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu adierazitako helbidera:

[1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.](#)

[2. Izen-emate kuotaren ordainketa-egiaztagiria.](#)

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + HONG KONG 2015".

Kontu zenbakia: ES97-0182-1290-36-0000017727 (BBVA)

BILBOKO MERKATARITZA GANBERAren izenean.

Izena emateko azken eguna: osteguna, 2015eko abuztuak 6an.

BILBOKO MERKATARITZA GANBERAren Finantza Sailak **parte-hartzearen baieztapenaren ondoren bidaliko du dagokion zenbatekoaren faktura.**

GARRANTZITSUA: Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DAKAR enpresaren parte hartzea ekintzan; Departamentuak izen-ematea onartu den edo ez jakinaraziko du.

FAKTURA JASO ONDOREN, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeko eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera. Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Ekintza honetarako aurreikusitako enpresa-kopurua gainditzen bada, hautatuak izan ez diren enpresek eskubidea edukiko dute izen-ematearen aurretik ordaindutako kuota itzul diezaieten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaieten.

Izen-emate fitxa

Prospekzio bidaia HONGKONGera
eta SHENZHENera, agendarekin

HONG KONG eta SHENZHEN 2015erako agendadun prospekzio bisitan parte hartu nahi dut, ondorengo baldintza hauekin:

Izen komertziala (sustapenerako):	
Sozietatearen helbidea (fakturaziorako):	
I.F.K.:	
Helbidea:	
P.K. – Herria:	
Probintzia:	
Tel:	E-mail:
Fax:	Web:
Parte-hartuko duen pertsona:	
Sakelako telefonoaren zenbakia:	E-mail:
Ekotzitako produktuak eta markak:	
Adierazi Hong Kongeko merkatua ezagutzen duzun edo bertan esperientziarik duzun:	
Adierazi Hong Kongen kontakturik/bezerorik izan duzun.	
Zer kontaktu? Sartu nahi duzu kontaktu horietakoren bat zure agendaren programazioan?	
Zehaztu interesatzen zaizun merkataritza enpresa edo sektore-bezeroaren profila, zure agenda egiteko.	

Data, sinadura eta enpresaren zigilua: